



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiaren 130. urteurreneko denboraldiak ekoizpen propio sutsuak, estreinaldiak, Beethovenen figurari eskainitako omenaldiak, dantza eta antzerki ikuskizun onenak eta musikal handiak proposatzen ditu

- Beethovenen jaiotzaren 250. urteurrenak isla izango du Arriaga Antzokiaren hainbat ekoizpen lanetan, Calixto Bieitok denboraldiari amaiera bikaina emateko zuzenduko duen *Missa Solemnis* bat barne.
- Manuel de Falla maisuaren “El amor brujo” eta “Siete canciones populares españolas” lanen musika bikainak emango dio forma Barbora Horáková Jolyk zuzendutako *Los fantasmas del pasado* kantata poetikoari.
- Denboraldi honetako antzokiaren ekoizpen lan propio handia, Bertolt Brecht-en lan ezagunaren Buero Vallejoren bertsioan oinarrituta María Goiricelayak zuzendu duen *Ama kuraia/Madre coraje* izango da.
- Antzerkiak, musikak eta operak bat egingo dute *Brecht se encuentra con Weill* lanean, bi maisu lan aurkeztuz, “La boda de los pequeños burgueses”, eta “Mahagonny - Ein Songspiel”, Andrea Moses zuzendari alemana buru izango duten euskal artistez osatutako taldearekin.
- Joaquín Achúcarro eta Bilbao Orkestra Sinfonikoa izango dira Arriaga Antzokiaren 130. urteurreneko ospakizun kontzertuaren protagonistak; eta Arriagak *21 lágrimas* ere ekoiztuko du, Carlos Menak bultzatutako kontzertuarekin amaituko den egitasmo didaktikoa.
- Tartean, Tanttaka, Marie de Jongh edo Khea Ziater euskal konpainiek Arriagan estreinatuko dituzte euren lanak, eta baita Pabellón 6k, Loraldia Jaialdiak edo zenbait musikaririk ere, Eñaut Elorrietak, besteak beste.
- Nazioarteko lan bikainak helduko dira: ikuskizun lirikoak, *Kopernikus*, adibidez; antzerkikoak, *Horror* edo *Vögel*; dantza ikusgarria, Hofesh Shechter, Marie Chouinard eta Akram Khan lehen mailako koreografoekin; eta lehen mailako konpainiak, Genevako Antzoki Nagusiko Balleta, etab.
- Alicia Borrachero, María Hervás, Nuria Espert, Aitana Sánchez-Gijón, Carmen Maura, Verónica Forqué, Blanca Portillo, Carmen Machi, Eduard Fernández, José María Pou, José Sacristán... dira Arriagako agertokira igoko diren izen handietako batzuk.
- *West Side Story* eta *El pequeño Frankenstein* musikal handiek eta Antonio Banderasek bultzatutako *A chorus line* musikal bikainak hankaz gora jarriko dute Arriagako besaulki patioa.

Bilbon, 2019ko ekainaren 5ean.- Calixto Bieito Arriaga Antzokiko Zuzendari Artistikoak eta Nekane Alonso Arriaga Antzokiaren presidente efektibo eta Bilboko Udaleko Kultura zinegotziak, Arriaga Antzokiak 2019-2020 denboraldian, 2019ko

abuztutik 2020ko ekainera bitartean, biak barne, eskainiko dituen ikuskizunen programazioaren berri eman dute gaur goizean prentsa aurrekoan. Denboraldia bat etorriko da Arriaga Antzokiaren 130. urteurrenarekin. Egia esan, gaur iragarri diren berrikuntzak irailaren erdialdetik aurrera etorriko dira, izan ere, dagoeneko ezaguna da zein izango den udako eta Aste Nagusiko programazioko ikuskizun nagusia (abuztuaren 14tik irailaren 8ra) *West Side Story*, Bernsteinen musikalko ezaguna.

Programazioa oso anitza da, elkarren artean oso desberdinak diren eta, hortaz, gustu guztietako ikus-entzuleei zuzenduta dauden ikuskizunez osatutakoa. Arriagako agertokitik, sentimenak piztea bilatuko duten artistaak eta oso proposamen sortzaileak igaroko dira. Azken urteetako ildoari jarraituz, programazioak bultzada eman gura dio bertako eszenari, Bilboko, Bizkaiko eta Euskadiko artistekin duen konplizitatearen bitartez; Espainiako Estatuan egiten den antzerki hoberena eskaintzea eta Arriaga Antzokiak nazioarte mailan duen posizionamendu bikainari eustea ere nahi du.

Ekoizpen propioa

Arriaga Antzokiak ikuskizunen ekoizpen lan garrantzitsuarekin jarraituko du, eta oso proiektu anitzak bultzatuz, beti bezala, tokiko talentuaren aldeko apustua eginez eta nazioarteko lehen mailako artisten eta sortzaileen ekarpenarekin uztartuz. Garrantzitsuenetako hiru, ahalmen handiko hiru emakumek zuzenduko dituzte. Datorren denboraldia hasi eta ia berehala, urriaren 4an eta 5ean, ikus-entzuleek oso ikuskizun interesgarriaz gozatu ahal izango dute, **Manuel de Falla** maisuaren musikarekin, “**El amor brujo**” lan ezaguneko eta “**Siete canciones populares españolas**” laneko musikarekin, hain zuzen ere. 2018an *International Opera Award* aintzatespena jaso zuen **Barbora Horáková Joly** zuzendari txekiarra Arriagara itzuliko da, duela gutxi *Dido & Aeneas* zuzendu eta gero, **Los fantasmas del pasado** ikuskizuna zuzentzeko, Manuel de Fallaren musika eta Michael Fehrren, Oliver Sacksen eta Stefan Kleinen testuak dituen kantata poetikoa.

Antzokiaren datorren denboraldiko ekoizpen lan handia **Ama kuraia/Madre coraje** da, eta bigarren seihilekoan izango da, martxoan, hain zuzen ere (18tik 28ra). Antzerki proiektu berriaren erreferentzia, Bertolt Brecht-en “Ama kuraia eta bere seme-alabak” lan ezagunaren Buero Vallejoren bertsioa izango da. **María Goiricelaya** euskal zuzendari gazte indartsu eta sendoenetako batek moldatu eta zuzentzen du lana. Lau emanaldi eskainiko dira euskaraz eta bost gaztelaniaz. Antzezlanaren argumentua ezaguna da: gerra beti izan da negozioa. Eta Ana Fierlingek badaki hori. Horregatik, bere seme biek eta alaba batekin doa aurrera basakerian zehar. Bando batean eta bestean, eta,aldi berean, ez batean ez bestean, zerbitzua ematen duten bitartean, ardatz nagusi giza biziraupenaren krudeltasuna duen istorio epikoa gauzatzen da. Materialismoa tragediari gailentzen zaio, gerrak sentsibilitatea galtzera garamatza, eta gizakiok ikasi barik jarraitzen dugu, akats berberak errepikatuz. Hala ere, gaur, basakeria egunero irensten dugu telebistaren bitartez. Ama Kuraia horri Suedia, Alemania eta Polonia urrun geratzen zaizkio. Horregatik, María Goiricelayak, erreferenteak egunero eguneratzen direnez, zoritxarrez definiziorik behar ez duen denboraz gaindiko gune belikora eramaten gaitu.

Halaber aipatu beharra dago **María Goiricelaya** birritan agertzen dela Arriagaren egitarauan, izan ere **El patio de mi casa** izeneko bere testua “Nuevas dramaturgias – Antzerkigintza berriak” egitasmoaren azken edizioan aukeratua izan zen. Bilboko Arriaga Antzokiak, Gazteizko Printzipal Antzokiak eta Donostiako Victoria Eugeniak bultzatutako ekimen honi esker lana taula gainera eramango da, María Goiricelayak berak zuzenduta, eta Arriagan bi emanaldi eskainiko dira, euskaraz otsailaren 26an (Patxo Telleriak egokituta eta **Harri orri ar** izenburuaz) eta gaztelaraz hurrengo egunean, 27an.

Maiatzaren 14tik 17ra, Arriagaren zigilua daraman beste egitasmo handi bat estreinatuko da. **Brecht se encuentra con Weill** denboraldiko hirugarren ekoizpen handiak, Berlingo hogeiko hamarkada zorientzuan Bertolt Brechtek eta Kurt Weillek osatu zuten eta mundu osoan ezagunak egin ziren euren gazte garaiko bi maisu lan aurkezten dira. Alde batetik, “La boda de los pequeños burgueses”, kaosean amaitzen den komedia zentzugabea, eta bestetik, “Mahagonny - Ein Songspiel”, Brechtek eta Weillek sortu zuten eta orain arte erabat ezezaguna izan den antzerki musikal mota; eszena-musika bat egitea, jazz ukituz betetako estiloarekin, hogeiko hamarkadan modan zegoen musikarekin, hain zuzen ere, gainbeheran dagoen kontsumo gizartearen aldeko erreklamoarekin. Euskal antzele taldeak emango dio bizia ikuskizunari, bere herrialdean antzerki musikal lanengatik hainbat sari lortu dituen **Andrea Moses** zuzendari alemanaren zuzendaritzapean. Arriagaren ekoizpen lan berriak oso elementu erakargarriak biltzen ditu: laburra eta zehatza, azkarra eta sinesgarria, groteskoa eta dibertigarria, surrealista eta sentimentala. Brecht/Weillen bi piezaz osatutako ikuskizunean erridikuluan jartzen da norberaren zorion txikiaren bilaketa, gizakiak bata bestea suntsitzen ari diren ingurunearen erdian.

Arriaga Antzokiaren beste proiektu interesgarri bat master class batean sortu eta apirilaren 19an amaituko da, **21 lágrimas** kontzertuan. Bertan, **Orlando di Lassoren** “Lagime di San Pietro” lan ezaguna interpretatuko da. **Carlos Mena** kontratenorea izango da ahots taldearen buru kontzertuan zehar. Bertan, emozioa, bertuosismo adierazkorra eta numerologia uztartzen dituzten 21 musika hasperen interpretatuko dituzte. Benetako bidaia Europako musika Berpizkundeko obra gorenetik. Ikuskizuneko ahots taldea, Arriaga Antzokiak aurrera eramango duen eta Carlos Menak berak eskainiko duen proiektu pedagogikotik sortuko da. Bertan parte hartuko duten ikasleak, 2019ko azaroan sopranoentzat, kontraltoentzat, tenoreentzat, baritonoentzat eta baxuentzat egingo diren entzunaldietan aukeratuko dira.

Gainera, Arriaga Antzokia lankidetzan arituko da berriro ere **Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin**, zinearekin erlazionatutako bi kontzertutan. **De película!** izenburua daraman lehenengoa, Hollywoodeko filmen soinu banden orkestra kontzertua izango da, fondoko irudiak erabiliz. Bere elementu erakargarrien artean, Jordi Brau eta Luis Posada bikoizketa antzeleen partaidetza dago, euren ahotsekin “Hollywoodeko antzeleak besaulki patiora ekarriko baitituzte”. Bigarrena, azken urteetan **Nosferatu** eta **Metropolis** klasikoekin, besteak beste, aurrera eramane den esperientzia bikaina errepikatzea izango da. BOSeK Alfred Hitchcocken **Vertigo** maisu lanaren musika zuzenean interpretatuko du, filmeko proiektioarekin erabateko sinkronia eginez. British Film Institutetako Sight & Sound aldizkariak garai guztietako film onena aukeratu duen filma ikusteko eta zuzenean entzuteko aukera paregabea.

Denboraldi honetan antzokiaren **130. urteurrena** betetzen denez, urteurrena oso kontzertu bereziarekin ospatuko dugu, 2020ko maiatzaren 31n, Joaquín Achúcarro maisua eta Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS) protagonista direla. Kontzertua, Ponchielliren “La Gioconda” lanaren oberturaren interpretazioarekin hasiko da. Izan ere, 1890eko maiatzaren 31n hartan eskaini zuen lehen aldiz emanaldi bat Arriaga Antzokiak, eta “La Gioconda” izan zen, hain zuzen ere. Orduetik, milaka artistak dardararazi gaituzte gure agertokian 130 urte hauetan. Emozioan oinarrituta denboraren iragana gainditzeko ideia horrek beste urteurren handi batera ere eramango gaitu denboraldi honetan: 250 urte betetzen dira Beethoven jaio zenetik. Horregatik, onena, bi ospakizunak bat egitea eta biak modu bikainean ospatzea izango da. Adibidez, piano eta orkestrarako sol maiorreko 4 zenbakiko kontzertua, op. 58, entzuteko aukera paregabea izango da. Eta, nork daki... agian maisuak eta orkestrak beste ezustekoren bat ere eskainiko digute.

Izan ere, Beethovenen jaiotzaren 250. urteurrenak bultzatuko du Arriaga Antzokiak datorren denboraldirako proposatzen duen beste ekoizpen lan handietako bat. Ekainean izango da, oraindik zehaztu barik dagoen egunean, eta denboraldirako amaiera bikaina izango da. **Calixto Bieitok** zuzenduko du **Ludwig van Beethoven** konposatzaile paregabearen lan nagusietakoa den **Missa Solemnis-en** musika jasoko duen proposamen artistikoa. Ekitaldi berezia izango da. Aurrerago ezagutu ahal izango ditugu Arriaga Antzokiaren ekoizpen lan berriaren xehetasun guztiak.

Eta hori gutxi balitz, Beethovenen jaiotzaren urteurrena egongo da, baita ere, genioari eta Vienako konposatzaile eskolari eskainitako zikloaren antolakuntzaren atzean. Zikloa foyerrean eskainiko da. Vienako eskolari dagokionez, Beethoven protagonista garrantzitsua eta aurrekari nagusietakoa izan zuen Europako musika klasikoko korronte estilistikoa izan zen. Beethovenekin berarekin hasita, zikloak Vienako eskolarekin erlazionatutako konposatzaile handienetako batzuei eskainiko die omenaldia, haien lieder alderdiari, hain zuzen ere. Hiru errezitaldi horietan, **Rubén Fdez. Aguirre** piano jotzailearekin batera hainbat ahots arituko dira. Lehenengoan, (otsailak 17), **Haydn eta Beethoven, maisua eta ikaslea, Manuel Gómez Ruiz** tenorea arituko da. **Alma eta Gustav Mahler** izeneko bigarrenaren protagonista **Ana Gabriella Schwedhelm** sopranoa izango da, martxoaren 16an. Azkenik, **Naroa Intxaustik** emanaldi orokorragoa eskainiko du, **Vienako eskola**, modu batean edo bestean Beethovenekin erlazionatuta dauden hainbat konposatzailei eskainitakoa.

Amaitzeko, Arriaga Antzokiak, denboraldi honetako **Garai zekenak-Tiempos mezquinos** ekoizpen lan arrakastatsua eskainiko du berriro. Abendua eta urtarrila bitartean izango da, ziurrenez, baina oraindik ez daude zehaztuta emanaldien egunak. Hori dela eta, bere unean emango da informazio hori. Gogorarazi behar da, **Raúl Cancelok** zuzendutako antzezlana, Ibsenen **Hedda Gabler** lanean oinarrituta Denise Despeyrouxek egindako moldaketa dela, eta euskal antzezle talde bikainak hartu duela parte, **Miren Gaztañaga** buru dela.

Euskal labela duten estreinaldiak

Beste urte batez, Arriaga Antzokia euskal kulturaren erdigune bilakatuko da, Euskadin egindako lanen estreinaldi garrantzitsuak jasoz. Aipatutako Arriagaren ekoizpen propioez gain, agertoki horrek egitasmo ugariaren lehenengo emanaldiak ere jasoko ditu. Tartean konpainiak, adibidez, **Simplicissimus Kabaret** bere proposamen berria estreinatuko du azaroaren 26an eta 27an, **Patxo Telleriak** idatzitako kabaret musikala, umorearen ikuspuntutik jazarpena jasaten duten komikoei omenaldia eskaintzeko, Berlingo hiru komiko ezagunetan oinarrituz. Erabateko estreinaldiak izango dira, baita ere, Fernando Bernuesek zuzendutako Tanttakaren **Utzi mezua seinalearen ondoren-Deje su mensaje después de la señal** lan berria, urriaren 15ean eta 16an euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko dena; Pabellón 6en **Sabias ellas** lana, urriaren 29an eta 30ean eszenaratuko dena, **Felipe Lozak** zuzenduta; eta **Iparragirre, bihotzeko Jose Mari** lana, Urretxuko bardoaren abestiz osatutako antzerki omenaldia, 2020ko martxoaren 11n, Loraldia jaialdiaren barruan.

Beste bi estreinaldik ere interes handia piztuko dute, arrazoi desberdinak direla eta. Bat **Ikimilikiliklik** da, **Jokin Oregiren** eta Marie de Jongh konpainiaren lan berria, berrikuntza garrantzitsua duena: lehen aldiz jestuala ez den ikuskizuna aurkeztuko du, hitza eta ahotsa erabiliz adierazpen bide gisa. Urtarrilaren 21ean eta 22an izango da. Bestea **Oymyakon: habitación 101** da, Khea Ziater konpainiaren eta **Alex Gerediaga** zuzendariaren azken sorkuntza lana. Duela hilabete gutxi Arriaga Antzokiaren **Macbeth** zuzendu ostean, proiektu berriari ekin dio, beti ere antzerkiko eta zineko kodeak erlazionatzen dituen estiloari leial izanda. Emaizta datorren urteko urtarrilaren 28an eta 29an ikusi ahal izango dugu. Amaitzeko, apirilaren 27an eta 28an, beti ere

moldakorra den **Mitzel Santamarin**ak “auto-fikzio” ikuskizuna eskainiko du formatu txikian, bakarrizketen eta abestien artean, **Gordo, basko y maricón** izenekoa.

Lehen mailako antzerkia

Antzerkia da datorren denboraldiko programazioan pisu gehien izango duen generoa, ia 40 antzezlan programatuko baitira.

Dagoeneko aipatu ditugun euskal antzerki estreinaldiez gain, datorren denboraldiko Arriagako programazioan euskal egileen beste proposamen batzuk ere izango dute lekua, Artedrama, Axut! eta Dejaburen artean ekoiztutako **Zaldi urdina**, adibidez; **Ximun Fuchsek** zuzenduko du, eta azaroaren 6an eta 7an ikusi ahal izango dugu; edo **Los otros Gondra (Relato vasco)**, **Borja Ortiz de Gondraren** antzezlan. Madrilen oso kritika onak jaso ondoren, Bilbora helduko da, istorio konprometituarekin, eta Euskadiko azken urteetako historiari buruzko galderak eginez bere buruari. Urtarrilera arte (23tik 26ra) itxaron beharko da ikusteko.

Halaber, Arriaga Antzokiak estatu mailan ekoizten ari den onena ekarriko du Bilbora, figura handiak hurbilduko gaituen lehen mailako eskaintza osatuz. Ikasturte hasieran bertan hasiko da, **Alicia Borrachero** eta **Elena Ballesteros** **Perfectos desconocidos** lanean ikusiko baititugu irailaren 11tik 12ra, edo duela denbora gutxi Max Sariatzen Emakume Antzezle Onenaren saria lortu duen **María Hervás**, euren burua La manada deitzen zuten bost bortxatzaileen biktima antzeztuz, zoritxarrez errealitate triste eta lotsagarria erakusten duen **Jauría** antzezlanean. Antzezlan urriaren 17tik 20ra dago programatuta. Ikus-entzuleek **Nuria Espert** ikusi ahal izango dute **Lluís Pasqualek** zuzendutako **Romancero gitano** lanean (azaroak 9 eta 10) eta **Aitana Sánchez-Gijón** dantza eta antzerkia uztartzen dituen **Juana** proposamenean (azaroaren 22tik 24ra). Gainera, **Agrupación Señor Serrano** taldeak **Kingdom** lanaren emanaldi bat eskainiko du abenduaren 5ean, platano arteko kapitalismoari buruzko erretratu esanguratsua. Beste Max Saridun bat, duela denbora gutxi Centro Dramático Nacionaleko Zuzendari izendatutakoa, **Alfredo Sanzol** zuzendaria, **La valentía** komedia dibertigarriarekin helduko da abenduaren 6tik 8ra. Eta hori gutxi balitz, urteko azkenengo lana, **Carmen Maura** eta **Félix Gómez** protagonista izango dituen **La golondrina** izango da, abenduaren 11tik 15era.

Datorren urtea ere oso trinkoa eta zirrargarria izango da antzerki jarduerari dagokionez. Urtarrila indartsu hasiko da, **Verónica Forqué**ekin **Las cosas que sé que son de verdad** lanean (urtarrilaren 9tik 12ra) eta eszenako beste emakume handi batekin amaituko da, **Blanca Portillo**ekin **Mrs. Dalloway** interpretatuz, urtarrilaren 30etik otsailaren 2ra. Handik denbora gutxira, bi antzezle handi etorriko dira, **Eduard Fernández** eta **Dario Grandinetti**, **El vientre del mar** lanarekin (otsailaren 21etik 23ra) eta **Laia Marull**, **Javier Hernández-Simón** bilbotarraren zuzendaritzapean, **Mariana Pineda** lanean (martxoak 13 eta 14). Udaberriaren dagoeneko, apirilaren 17an eta 18an, **Pere Arquillué** antzezle katalan handia, **Jerusalem** lanaren gaztelaniazko moldaketaren protagonista izango da. Jatorrizko bertsioan ikus-entzule britainiarrak liluratu zituen utopien amaierari buruzko gogoeta orijinala eta berezia. Bost egun geroago, apirilaren 23tik 26ra, Arriagak **El curioso incidente del perro a medianoche** jasoko du, beste antzerki moldaketa bat, oraingo honetan Mark Haddonen eleberriarena. 5 Tony (Broadway) eta 7 Olivier (Londres) sari irabazi dituen lanaren interpreteen artean **Alex Villazán** edo **Marcial Álvarez** daude. Areto handiko antzerki programazioak maiatzaren 27tik 30era jarraituko du, **José María Pouren** itzulerarekin, **Mario Gasek** zuzenduta, **Ernesto Caballeroren** **Mi viejo amigo Cicerón** antzezlan interpretatuz. Eta “lehen mailako gizonezko hirukote” horren ostean, “lehen mailako emakumezko hirukotea” jasoko dugu, izan ere, **Carmen Machi**, **Nathalie Poza** eta **Elena Rivera** antzezleak arituko dira **Prostitución** lanean, prostituzioaren gaia epaitu barik, hainbat ikuspuntutik, erakusten eta bertara hurbiltzen

den antzerki-musika-dokumental lana (ekainak 5 eta 6). Eta, amaiera emateko, letra handiz idatzi beharreko beste aktore bat, **José Sacristán**, Miguel Delibesen **Señora de rojo sobre fondo gris** eleberri ezagunari buruz egiten den lehenengo muntaketa eszenikoan. Ekainaren 11tik 13ra Arriaga Antzokian.

Eta hori guztia gutxi balitz, Arriaga Antzokiaren 2019-2020 denboraldiak lehen mailako nazioarteko bi antzezlan ere jasoko ditu. Ordena kronologikoan, lehenengo ikuskizuna urriaren 11tik 13ra helduko da, **Horror. Jakob Ahlbom** artista suediarren sorkuntza lana da, eta gizakiak barruan dituen beldurren izaerari buruzko gogoeta egiten du. Ahlbomek hainbeste atsegin dituen beldurrezko filmak, Stanley Kubriken *El Resplandor* (1980), Roman Polanskiren *El bebé de Rosemary* (1968), edo Wes Cravenen *Pesadilla en la calle del infierno* (1984) omentzen dituen lana da; beldurrezko mundu magikora eramango gaitu, eta ikus-entzuleentzat ezinbestekoa izango da pertsonaiekin inplikatzeko, eta oihu eta barre egin gura izatea.

2020an jadanik, urtea hasi eta segituan (urtarrilaren 15ean), ikus-entzuleek, Alemaniatik etorrira alemanierazko, hebreerazko eta arabierazko jatorrizko bertsoan eskainiko den **Vögel** lana ikusi ahal izango dute, euskarazko eta gaztelaniazko azpititulekin. **Wajdi Mouawad** dramaturgo bikainaren (beste batzuen artean, antzerkirako bertsoak Arriagan duela bi urte arrakasta itzela izan zuen *Incendios* lanaren egilea) lana da *Vögel*. Aldi berean thrillerra eta maitagarrien ipuin modernoa da. Antzinako tragedia baten indarrarekin, Mouawadek, indarkeriaz, norbanakoen jomugez eta familia gatazkez betetako istorioa eraiki du, Ekialde Ertaineko gatazkaren testuinguruan.

Antzerki gehiago

Denboraldi honetan, Agertoki Espazioa izena eramango duten 15 muntaketa lan baino gehiago eskainiko dira. Ikus-entzuleen eta interpreteen arteko gertutasunean oinarritutako proposamen artistikoak dira. Aipatutako estreinaldiei beste lan interesgarri batzuk gehitu behar zaizkie, **Iñaki Rikartek** zuzentzen duen **Kulunka** konpainia sarituaren **QuitamiedoS** azken proposamena (urriak 7 eta 8) edo urriaren 22an ikusi ahal izango dugun **Enriquetta Vegaren Diva di palo** pieza. **Eguzki Zubia Chema Trujilloren** zuzendaritzapean arituko da (*Ella no es Liz Taylor*, azaroaren 12an), eta **Carolina Románen** (*Juguetes rotos*, azaroak 14) edo **Itziar Lazkanoren** (*Y todo por amor*, azaroak 19) lanak ere programatu dira.

Agertoki Espazioaren programazioan jasotzen diren beste lan batzuk, 2Theatre konpainiak giza gatazkaren sustraiei buruz prestatu duen **Interbeing** (urriak 24); **Ángel Mirouren Camiselle**, **Bea Insaren** zuzendaritzarekin eta **Loli Astoreka** interprete dela (abendua 9); **Pabellón 6eko Konpainia Gaztearen Mi último baile**, **Getari Etxegaraik** zuzenduta (2020ko martxoak 3 eta 4); León de la Vega piano jotzailearen enkarnazioa **Daniel Ortizen** eskutik **Preludio** lanean (apirilak 21) eta **Las cosas extraordinarias**, **Brays Efe** antzezle ezaguna protagonista izango den komedia dibertigarria (ekainaren 8tik 10era) dira.

Dantza egitarau paregabea

Beste urte batez, Arriaga Antzokiaren dantza egitarauaren estilo eta jatorri eremua oso zabala da. Dagoeneko aipatu dugu **Juana** lana, dantzari talde batek inguratuta, **Chevi Muraday** koreografoak zuzenduta, arituko den Aitana Sánchez-Gijón aipatu dugunean, Losdadae konpainiak, 2016ko Dantza Ikuskizun Onenaren MAX Saridunak, proposatzen duen dantza eta antzerki fusio horretan.

Euskal dantza hiru proposamenetan gauzatuko da. Urriaren 9an **Gorpuztu** eszenaratuko da, zuzeneko musika izango duen eta orekaren bilaketari buruz berba egiten duen dantza garaikide ikuskizuna, **Eva Guerrero** sortzaile bilbotarrak, hainbat erlijiotan edo filosofiatan une jakin batzuetan gorpuztaren erabilerari buruz egindako

ikerketa lanetik sortutakoa. Abenduaren 2an eta 3an Kukai Dantza Arriaga Antzokira itzuliko da, **Jon Maya Sein** dantzari eta koreografoaren, taldearen alma materraren gogoeta pertsonaletik eta intimotik sortutako **Gauekoak** proiektuarekin. Agertokian dantzari gisa arituko da, eta proiektuaren inguruan asko maite dituen eta beretzat oso bereziak diren eta dantzari, musikari, kantuari, ilustrazioei, literaturari... gautik eraso egiten dieten pertsonak elkartu ditu (**Arkaitz Miner, Mireia Gabilondo...**). Izan ere, gaua datorrenean eta argiak itzaltzen direnean, arima batzuk esnatu egiten dira. Amaitzeko, Agertoki Espazioaren barruan beste esperientzia artistiko interesgarri bat biziko dugu, **Krego-Martin Danzaren**, María Martínen eta Judit Ruizen egitasmo komunaren, eskutik. **Zona (no) confort** lanean, gizakiak, kaltebera eta ikusgai sentitzen denean jasaten duen deserosotasunean murgilduko gaituzte. Otsailaren 18an izango dugu gurean.

Nazioarteko esferatik goi mailako sei ikuskizun aukeratu dira, dantza zaleak hunkituko dituzten emanaldiak. Azaroaren hasieran, 1ean eta 2an, **Hofesh Shechter Company** helduko da Arriagara, **Hofesh Shechter** koreografo ezagunaren azken lanarekin. **Grand Finale** oso pieza ausarta eta asmo handikoa da, egoitza Erresuma Batuan izan arren nazioarteko proiektioa duen konpainiako dantzari talde bikainak eskainiko duen interpretazioarekin, zuzeneko musikari banda batek lagunduta. Lana komikoa, goibela eta ederra da aldi berean; eta bere buruarekin desadostasuna duen eta energia anarkikoz eta indarkeriazko komediaz beteta dagoen mundua ekartzen du gogora. Gogorarazi behar da duela 10 egun Arriagan izan genuen Basileako Antzokiko Balletaren emanaldiak koreografo beraren pieza bat jaso zuela, eta ikus-entzuleek asko txalotu zutela.

Azaroaren amaieran (29an eta 30ean) **Iceland Dance Company** harrigarria itzuliko da Islandiatik. **Erna Ómarsdóttir** zuzendari artistiko eta koreografoak **The best of darkness** pieza eraiki du. Bertan, iluntasunaren inguruan egiten dute dantza, lasai lo egiteko aukera ematen dizun baina, aldi berean, beldurgarria eta zaurgarritasun iturri den leku bero eta limurtzaile horretan. Datu interesgarri gisa, esan behar da obra horrek **Sigur Rós** Islandiako musika talde ezagunaren jatorrizko musika duten zenbait lan osatzen dituela.

2020an dagoeneko, urtarrilaren 17an eta 18an, **Blanca Li-ren** txanda izango da, bere konpainiaren buru. Granadan jaio eta New Yorken prestatu zen, Martha Grahamekin, eta Parisen ezarri eta bere konpainia sortu zuen... Blanca Li koreografo, zinegile, dantzari eta antzezle handia da; etengabe berriztatzen ari den artista, estilo gama zabalean inspiratzen dena. **Solstice** da konpromiso handiena erakusten duen bere ikuskizuna. Paregabeko hamalau dantzarik eta perkusio jotzaile batek ematen diote forma naturaren edertasuna eta energia, baina baita hauskortasuna ere, ospatzen duen dantza ikuskizunari.

Berriro bisitatuko gaituen beste bat, bi ekitalditan, etenik barik eskainiko diren 1 eta 10 minutu arteko 24 dantza harribitxi laburrez osatutako bildumarekin Kanadatik etorriko den **Compagnie Marie Chouinard** izango da. Marie Chouinard handia konpainiako errepertorioan murgildu da, goi mailako unek eratzeko eta bakarkako eta bikotekako lanez osatutako lan berria sortzeko, forma koreografiko txiki horiei perspektiba berriak emanez. **Radical vitality, solos et duos** erradikala da, Radix latinoaren esanahian, sustraiari dagokionez, hain zuzen ere. 2017an Marie Chouinardek harrituta utzi gintuen, Boscoren "El jardín de las delicias" lanean oinarritutako ikuskizunarekin. Datorren urteko martxoan (6an eta 7an) bere kategoriarekin bat etorriko den beste proposamen batekin itzuliko da. Goi mailakoa izango da, baita ere, ikus-entzuleek berotasunez hartu ohi duten **Akram Khanen** ikuskizun berria. Apirilaren 3an eta 4an **Outwitting the devil** bere azken lana eszenaratuko da, erritualean eta oroitzapenean kontzentratutako epopeia, duela denbora gutxi aurkitu den Gilgameshen Epopeia

babiloniarren, kontserbatzen den mundu osoko literatur lan garrantzitsu zaharrenetako baten, zati batean inspiratzen dena. Arriaga Antzokian eskainiko den emanaldia lan horren Estatuko estreinaldia izango da.

Amaitzeko, maiatzaren 1ean eta 2an, (bigarren egunean emanaldi bikoitzarekin), Europako ballet handietako bat izango dugu, literatura unibertsaleko lan ezagunenetako bat, **Romeo eta Julieta**, interpretatuko duen Genevako Antzoki Handiko Balleta, Bilbao Orkestra Sinfonikoak zuzenean lagunduta. **Ballet du Grand Théâtre de Genève**ren dantza pieza ederrek eta **BOSEk** zuzenean joko duen musikak hegaz jarriko du Shakespeareren istorio handia, Joëlle Bouvier koreografo suitzar ospetsuaren proposamen honetan. Veronako maitaleen istorio betierekoa dakar, **Serge Prokofiev**ek berak bere "Romeo eta Julieta" balletetik orkestrarako hartutako hiru suiteen zatietan oinarrituta.

Musikal handiak

Arriagako programazioan musikal handiak sartzea ez da gauza berria, baina berria da denboraldi berean horrelako lau ekoizpen lan eskaintzea. Udarako iragarrita dagoen *West Side Story* lanaz eta kategoria horretan sartu dezakegun *Simplificissimus* cabaretaren estreinaldiaz gain, musikal onenen osagai guztiak dituzten beste bi ekoizpen lan handi ere gehituko dira.

Gabonetan *El jovencito Frankenstein* helduko da Arriagara, abenduaren 19tik 29ra karteldegian egoteko. Mel Brooksek 1974an egin zuen izen bereko film deliriantean oinarrituta, Broadwayn, West Enden eta Madrilen arrakasta handia lortu ondoren helduko da Bilbora. Madrilen iaz estreinatu zen, 1818ko urtarrilaren 1ean argitaratutako "Frankenstein" lanaren bigarren mendeurrena ospatuz.

Eta bi hilabete igaro ondoren, otsailaren 6tik 16ra, gure agertokiak historiako musikal ospetsuenetako baten emanaldia jasoko du. **Antonio Banderasek** eta **Soho CaixaBank Antzokiak A Chorus Line** aurkeztuko dute, 1975ean estreinatu ondoren 15 urte jarraian karteldegian egon zen eta bederatzi Tony sari eta Pulitzer bat lortu zituen Broadwayko musikal txalotua. Broadwayko musikal berri batean parte hartzeko entzunaldietan parte hartzen ari den gazte talde bati buruzko ikuskizuna paradigma aldaketa izan zen planteatu zen unean, jatorrizko antzezle taldeko kideen benetako esperientzietan oinarritu baitzen. **Baayork Leeren** zuzendaritza eta koreografia dituen eta **Antonio Banderas** berak ere zuzentzen duen eta Arriagara helduko den ekoizpen lana, jatorrizko ikuskizunaren revivala da. Agertokian 26 interprete eta zuzeneko orkestra handia izango ditu.

Amets egiteko ikuskizun lirikoak

Arriaga Antzokiaren ekoizpen lan propioez gain, datorren denboraldiko programazioak lirikarekin lotutako oso ikuskizun erakargarriak jasotzen ditu. Bitxia bada ere, gehienak 2020ko apirilean eta maiatzean izango dira. Nazioartean duen oihartzuna dela eta hitzordu liriko garrantzitsuenetakoa maiatzaren 21ean eskainiko dena izan daiteke. **Peter Sellars** zuzendari handiak bere zigilu artistiko pertsonala jarri dio **Claude Vivier** konposatzaile kanadiarraren *Kopernikus – A Ritual Opera of Death* operari, eta Bilboko ikus-entzuleek planteamendu hori dastatzeko aukera izango dute. Lanaren izenburuaren ostean dagoen Kopernikusek, gauzak ikusteko modua aldatu zuen iraultza ekarri zuen. Hemen ez dago gatazka dramatikorik, ez dago paperik, mitologiari, maitagarrien ipuinei eta historiari buruzko erreferentziak baino ez. Kopernikusek erabateko garbikuntza, buruko egoera garbia, bilatzen du. Zeruko melodiak entzuten dira. Suz eta urez markatutako operak hunkitu egingo gaitu Claude Vivier konposatzaile kanadiarraren musika bikainarekin, eta benetako topaketa, ezin ederragoa, osatzen du.

Aipamen berezia merezi du, baita ere, apirilaren 15ean eskainiko den emanaldiak. Francisco Fernández-Rueda tenoreak eta Rubén Fdez. Aguirre piano jotzaileak **Winterreise** (neguko bidaia) lanaren musika ederra oparituko dute, Franz Schubertek (1797-1828) Wilhelm Müllerren (1794-1827) poemetan oinarrituta, idatzi zuen 24 liederren zikloa. Hasiara batean zikloa tenorearentzat eta pianoarentzat idatzi zen eta, ondorioz, **Joan Anton Rechik** zuzendutako eszenan jartze indartsua duen bertsio horrek, jatorrizko erregistroa eta tonu kolorea berreskuratuko ditu. Schubertek bere bizitzako azken urtean idatzi zuen, jadanik gaixo zegoela, eta malenkoniak deskribatzen du existentziaren ikuspegi tragikoa.

Horrez gain, indarrean jarraitzen du, beste denboraldi batez, OLBEren eta Arriaga Antzokiaren arteko lankidetzak akordioak. Aurten, umeei zuzendutako lau operatan gauzatuko da: **Soñando el carnaval de los animales** (urriaren 26tik 28ra), **Alí Babá y los cuarenta ladrones** (urtarrilaren 3tik 5era), **La cenicienta** (otsailaren 29tik martxoaren 2ra) eta **Guillermo Tell** (maiatzaren 23tik 25era).

Gustu guztietarako kontzertuak

Kontzertuen arloan ere badaude musika hitzordu liriko edo/eta klasiko azpimarragarriak. **Noa** abeslari israeldarraren ahots handiak bere mundua Johann Sebastian Bachen munduarekin lotu du, apirilaren 1ean Arriagako agertokian aurkeztuko den oso proiektu politean. **Letters to Bach** izeneko lan berrian abeslariak hitzak idatzi dizkie, ingelesez eta hebreeraz, konposatzaile handiaren 12 konposiziori. Bere ahotsaren bitartez, haren polifonia bikainarekin ezin hobeto integratzen den oso kolore ederra ematen dio. Bach bera izango da **James Rhodes** piano jotzaileak apirilaren 5ean interpretatuko duen musikaren genioetako bat, Chopinen edo Beethovenen lanak ere eskainiko dituen kontzertuan. Eta berriro ere Bach, oraingo honetan Bilboko Koral Elkartearekin eta musika barrokoan eta errenazimenduan espezializatuta dagoen Ensemble Diatessaron taldearekin. Genio alemanaren moteteen eta pasioen abesbatzatarako eta koruetarako aukeraketa eskainiko duen oso kontzertu berezia izango da apirilaren 8koa, **Jesu, meine Freude** izenburua duena.

Kontzertu “klasikoen” atalean ezin dugu Eugenia Boix sopranoaren, Teresa Valente biolontxelo jotzailearen eta Susana García de Salazar piano jotzailearen emanaldia ahaztu. Errebindikatu behar ditugun lau euskal emakume egileren errepertorioa eskainiko dute: Julie Adrienne Carricaburu y Roger, Emma Chacón, Emiliana de Zubeldia, eta Anita Idiarborde. **Inéditas** izeneko ikuskizuna martxoaren 10ean izango da, eta Carmen San Esteban antzezlearen kolaborazioa ere izango du.

Eta, jakina, Arriagako agertokiak estilo guztietako artistek eskainiko dituzten kontzertuak jasoko ditu. **Ruper Ordorika** “biluzienak” bakarka eta formatu akustikoan bisitatuko gaitu urriaren 6an, **Bakarka** lanarekin. Hilabete bereko 23an, **German Ormazabal** eta **Xabier Lizaso** piano jotzaileak **Andoni Egañarekin** arituko dira. Arriaga Antzokiak beste euskal abeslari batzuen lan berriak zuzenean entzuteko aukera eskainiko du, **Gontzal Mendibil** (**Biok**, azaroak 3) eta **Eñaut Elorrieta** (**Irteera argiak**, abenduak 1), eta baita **Anne Etchegoyen** (abenduak 10) ere. Azken horren **Euskal emazte** izeneko egitasmo berriak emakumearen irudi modernoa errebindikatzen du. Kuriositatea sortuko duen bisita **Salvador Sobral** abeslari portugaldarrarena izango da, Bilbora azaroaren 17an helduko den Europako biraren barruan. Izaera handiko izenak ere etorriko dira Arriagara, azaroaren 13an bere *¿Revolución tour?* proposamenarekin helduko den **Coque Malla**; edo abenduaren 30ean bere soinu amerikarrena erakutsiko digun **Quique González**. **Dulce Pontes** eta **Daniel Casares** gitarra jotzailea agertokian elkartuko dira urtarrilaren 8an, musika ibilbidean egindako 30 urteak ospatzeko, eta **Penguin Cafe** berriztatua urtarrilaren 19an arituko da. **Mikel Urdangarin** ere Arriaga Antzokira itzuliko da, oraingoan piano aurrean eserita, Loraldiak bultzatutako kontzertuan (martxoak 12). Beste emanaldi

interesgarri batzuk **Enrike Solinis** buru den **Euskal Barrokensemblek** eskainiko duen **Elkano** proiektua (ekainak 3) edo **Bilboko Koral Elkarteak** antolatzen duen eta agertoki gainean hainbat ikastetxetatik datozen eta kanturako ilusio handia duten 200 ume ahots elkartuko dituen **Eskolan Kantari** izenekoa dira. Azken hau ekainaren 14ean gauzatuko da.

Foyer espazioa

Arriaga Antzokiko foyerrak ikuskizunak jasotzen jarraituko du, gertuagoko giro intimistagoan. Dagoeneko aipatu dugun “Beethoven eta Vienako eskola zikloaz” gain, oraingo honetan biolontxelo batek indartutako **Khantoria** musika hirukoteak beste programa bat aurkeztuko du azaroaren 4an, Joaquín Ojinagaren (Bilbo, 1719 – Toledo, 1789) lana ezagutarazteko eta testuinguruan jartzeko. XVIII. mendeko euskal konposatzaile garrantzitsuenetakoa da, eta aurten bere jaiotzaren 300 urte betetzen dira. Horrez gain, foyerrean, Arriaga Antzokiak eta Bilboko Udaleko Euskara Sailak bultzatutako “Literatura eta Musika Euskaraz” programa eskainiko da beste urte batez. Datorren denboraldian lau ikuskizun izango ditu, hauek, hain zuzen ere:: **Anje Duhalde eta Koldo Amestoy** (urriak 21), **Alboka Folk Taldea** (2020ko urtarrilak 20), **Xabier Amuriza eta Agus Barandiaran** (*Koplariak*, otsailak 10) eta **Borja Estankona, Igor Estankona eta Ilargi Agirre** (*Bigarren ahotsa*, apirilak 20).

Sarrerak salgai uztailaren 1ean

2019-2020 denboraldiko ikuskizun guztietarako sarrerak (dagoeneko salgai dauden *West Side Story* ikuskizunerako sarrerak izan ezik) uztailaren 1etik, astelehenetik, aurrera egongo dira ikus-entzuleen esku, Arriaga Antzokiaren ohiko salmenta puntuetan: www.teatroarriaga.eus webgunean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus